

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARCENAKO MENDILERROKO ERKIDEGOA

**Behin betiko onartzea Arcenako Mendilerroko Erkidegoaren erabilera publikoko 134 zenbakiko mendiko eta Erkidegoko kontzejuen mendi publiko batzuetako fruituen, perretxikoen, landareen eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza (Barrio: 108 zenbakiko mendia eta 110 zenbakikoa; Nograro: 120 zenbakiko mendia; Quejo: 132 zenbakiko mendia eta 137 zenbakikoa; Gurendes: 700 zenbakiko mendia eta 183 zenbakikoa; Bachicabo: 140 zenbakiko mendia; Sobrón: 57 zenbakiko mendia). (Hemendik aurrera "Arcenako Mendilerroa" esango diogu erabilera publikoko mendi horien multzoari)**

Arcenako Mendilerroko Erkidegoak, 2013ko azaroaren 30ean bilduta, hasierako onarpena eman zion fruituen, perretxikoen, landareen eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza onartzeko egindako espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon den artean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen da, indarrean sar dadin.

#### Zioen azalpena

Herritarrek naturaz uste dutena apurka-apurka aldatzen ari da eta horren ondorioz geroago eta jende gehiago ari da ohartzen naturak erakarmen handia daukala zabalaldirako eta aisialdirako. Bada, gizartean gauza "naturaletarako" joera nagusitzen ari dela, landa ingurunea, mendia funtsezko elementu duena, interes handiko esparrua da.

Horren ildotik, gaur egun naturaz, orokorrean, eta landa inguruneaz, zehatzago, nagusi den kontzeptuarekin bat etorritik, ordenantza honetan landa garapenerako proiektuetako irizpideak eta xedek aplikatu dira helburu hauek lortzeko:

1. Gure herriak bultzatzea hainbat arlotan: ondarearen eta kulturaren artapena; turismo eskaintza hobetzea (landetxeak, mendi ibiliak eta mendiko beste kirol batzuk, fruitu bilketa, perretxiko bilketa -turismo mikologikoa-, landare bilketa, lore bilketa, etab.).

2. Ordenantzaren eraginpeko herritarrak defendatzea eta beraien alde egitea, bertan ezartzen denaren jasotzaileak eta onuradunak baitira, ondasunak sortzen dizkieten produktuen jabeak diren aldetik dauzkaten eskubideak artatzeko.

Ordenantza honen xedea Arcenako Mendilerroko fruituen, perretxikoen, landareen eta loreen aprobetxamendua arautzea da.

Mendiari, eta batez ere perretxiko bilketari, lotutako jarduerak gure herrien garapen ekonomikoa eta soziala sustatuko badute, ezinbestekoa da arautzea, baliabideak arduraz eta modu iraunkorrean erabili behar baitira, gure artean mendiaren aprobetxamenduan egin ohi den bezala.

Aprobetxamendu hau arautu beharra are beharrezkoagoa da kontuan hartuz gero nola dauden gure mendiak: jendea inolako kontrolik gabe ibiltzen da motordun ibilgailuetan denetariko basobideetatik, eta perretxikoak bereiztu gabe biltzen dira dauden guztiak ahitu arte. Horrela jarraituz gero, baliteke luze gabe gure ondareari egindako kalteak atzeraezinak izatea edo egoera lehengoratzeko kostuak oso altuak izatea.

Horretarako urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretua onartu zen. Dekretu hartan perretxikoak, basoko fruituak, landareak eta loreak biltzeko bete beharreko baldintza orokorrak ezarri ziren

jarduera horrek ingurumenean eduki dezakeen eragin kaltegarria ahalik gehiena murrizteko asmoarekin.

Foru dekretu horretako 4. artikulua ezartzen du erakunde jabeek udal ordenantzen bitartez arautu dezaketela produktu natural horien bilketaren kudeaketa, kasuan kasuko udalerriko ezaugarri bereziak aintzat hartuta eta dekretu honetan ezartzen denarekin bat etorriz.

Izan ere, urteko sasoi batzuetan perretxiko, fruitu eta landareen bilketak izan duen hazkunde neurrigabearen ondorioz, eta kontuan izanik lurren jabea bertako perretxikoen eta gainerako produktuen jabea ere badela (88/2009 Foru Dekretuak 2.1 artikuluan ezarri den bezala), kontzejuek ahalmena dute produktu horien aprobetxamendua, batez ere perretxikoena, arautzen duen ordenantza hau emateko. Ordenantzaren helburua produktuok modu egokian eta ondo antolatuta aprobetxatzea da, ekosistemaren oreka eta espezieen iraupena zainduz eta eskubide tradizionalak eta herritarrenak eragotzi gabe.

Lege oinarri honen gainean eraiki da ordenantza; ahaleginak egin dira Arcenako mendietako lurren jabeen eskubideak eta herritar guztiek mendi publikoak erabiltzeko eta aprobetxatzeko duten eskubidea bateratzeko.

## I. titulua

### 1. artikulua. Oinarria

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 106. artikuluan ezartzen dituen ahalmenak erabiliz martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, 4. eta 5. artikuluetan mendiak administratzeko ematen dizkien eskumenak eta egitekoak baliatuz, eta kontuan hartuz foru arau horrek eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 89/2008 Foru dekretuak, perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamenduak antolatzen dituenak, perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamenduez ezartzen dutena, Barrio, Nograro, Quejo, Gurendes, Bachicabo eta Sobrongo kontzejuek Arcenako Mendilerroko Erkidegoaren erabilera publikoko 134 zenbakiko mendiko eta Erkidegoko kontzejuen mendi publiko batzuetako perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamendua arautzen dute (mendien zenbakiak, hurrenez hurren: 108-110, 120, 132-137, 700-183, 140 eta 57). Hemendik aurrera "Arcenako Mendilerroa" esango diogu multzo horri. Halaber, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta aplikatu beharreko gainerako arauak ezartzen dutenarekin bat etorriz, Arcenako Mendilerroko perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamenduaren tasa ezartzen eta arautzen da.

### 2. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Ordenantza honek Arcenako Mendilerroko erabilera publikoko mendietako perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamendua arautzen du, indarreko legeriaren arabera beste administrazio publiko batzuek dauzkaten eskumenak eragotzi gabe, jarduera horrek baliabide naturaletan eta beraien habitatean sortzen dituen ondorio kaltegarriak ahalik gehiena murrizteko.

1. Boilurren (tuber generoa) aprobetxamendua ez da librea: mendiaren jabea den erakundearen baimena eduki behar da.

Zuhaitz landareen aprobetxamendua ez da librea: mendiaren jabe den erakundearen eta Foru Aldundiaren baimena eduki behar dira.

Bai txilarren, ezpelen eta beste zurezko landare batzuen bilketa, bai lore landareak, lorea, basafruituak eta onddoak araudi (ordenantza) honetan ezartzen diren mugen gaineratik aprobetxatzea, mugarritu gabeko lursailetan, industria edo merkataritzako jardueratzat joko dira eta aritzeko erakunde titularraren baimena beharko da (lurrak katalogatutako mendiak badaude, Arabako Foru Aldundiarena ere bai).

2. Ordenantza honetan xedatzen dena beraren izenburuan aipatzen diren erabilera publikoko mendietako lur guztietan aplikatuko da. Lurrak behar bezala seinalizatu behar dira, urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuak 4.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz.

### 3. artikulua. Definizioak

Ordenantza honi eta beraren ondoriozko arauari eta erabakiei dagokienez, definizio hauek erabiliko ditugu:

- a) Perretxikoa: onddo baten ugaltza edo fruitu gorputza, esporak sortu eta sakabanatzen dituen.
- b) Boilurra: Tuber generoko onddoak garatzen duten koskor mamitsua, tuberkulu formakoa. Ordenantza honen ondorioetarako perretxikoak bezalakoak dira.
- c) Baimena: mendiaren jabea den administrazio publikoaren egintza, bilketan aritzeko eskubidea ematen duena. Baimena ematea interes orokorraren mende egongo da; zehazkiago, basoko ekosistemaren orekaren eta espezieen iraupenaren mende.
- d) Bilketarako egutegia: perretxikotan ibil daitekeen egunen eta, eskusiaz, ezin ibil daitekeen egunen zerrenda.
- e) Eskutada: pertsona heldu batek eskuan har dezakeen sorta.
- f) Aprobetxamendua: basafruituak, landareak, loreak eta perretxikoak eskuz biltzea.

## II. titulua

### Aprobetxamenduen baldintzak

#### 4. artikulua. Perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen bilketa erabilera publikoko mendietan

1. Arcenako Mendilerroko erabilera publikoko mendietako perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamenduetan nahitaz bete behar da Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuan ezartzen dena; horrez gainera aprobetxatzen direnak baliabide natural berriztagarriak direnez gero, beraien zentzuzko erabilera eta kontserbazio egokia uztartu behar dira, ekosistemaren oreka eta espezieen iraupena bermatzeko, inolako eskubiderik sortu gabe.

2. Mendiak jostetarako erabiltzeko eskubidea aitortzen da arau orokor gisa, baina horrek inola ere ez du aprobetxamendurako aukerarik emango ordenantza honetan ezarritako mugetatik kanpora.

3. Perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamendua beti lotu behar zaio ordenantza honetan ezarritakoari. Beraz, mendiaren aprobetxamendutzat joko da, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak 36. artikuluan eta urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoan perretxiko, basafruitu, landare eta loreen bilketa arautzen duenak, 3.5 artikulua ezartzen dutenarekin bat etorritz.

4. Ordenantza honetan arautzen diren aprobetxamendu guztiak Sobrón, Bachicabo, Barrio, Nograro, Quejo eta Gurendesko kontzejuen urteko aprobetxamendu planean sartu behar dira, bertako baldintza ekonomikoekin eta ahalmenaren inguruko baldintzekin, 11/2007 Foru Arauak, mendienak, 36. artikuluan xedatzen duenaren arabera, eta haietatik sortzen den diruaren ehuneko 15, gutxienez, foru arau horrek arautzen duen hobekuntza funtsera bideratuko da.

5. Apaingarritarako, sukalderako edo sendatzeko erabiltzen diren belar eta loreen aprobetxamendua librea izango da, baldin eta gure mendietako espezie arruntak badira eta babestuta edo katalogatuta ez badaude. Gehienez ere, eskutada bat hartu ahalko da pertsona eta egun bakoitzeko sortetan batzen diren espezieen kasuan, edo, ontziren batean batzen diren landare edo loreen kasuan, 200 gramo berdean, pertsona eta egun bakoitzeko.

### III. titulua

#### Baimenak

##### 5. artikulua. Baimenak

1. Perretxikoak, basafruituak, landareak eta loreak biltzeko baimena eduki behar da. Baimenak kontzejuetako erregidore-lehendakariak emango dituzte edo, bestela, udalerrietara egunero bilketa asmotan joaten diren pertsonen kopurua kontrolatzeko izendatuko diren establezimendu laguntzaileetan eskuratu beharko dira.

Baimenaren titularrari aprobetxamendu eremuaren funtzionamendu arauak emango zaizkio. Arauok bete ezean, baimena indarrrik gabe geratuko da.

2. Ordenantza honetan aipatzen diren baimen guztiak izendunak, pertsonalak eta bestere-nezinak izango dira.

3. Ordenantza honetan arautzen diren espezieetako aleren bat aldean daramaten pertsonak horretarako baimena eduki beharko dute. Bilketak dirauen bitartean biltzaileak baimena eta identifikazio agiriren bat eduki beharko ditu aldean, bai eta erakutsi ere, eskatuz gero. Biltzaileek Arcenako Mendilerroko erabilera publikoko mendietako baso pistetan aldean edo ibilgailuan dauzkaten perretxikoak bertan bildu direla pentsatuko da.

4. Baimenak eskaerak jasotzen diren hurrenkera berean emango dira, ezartzen den kopurua agortu arte.

5. Ibilgailuaren aurrealdeko aginte panelaren gainean emango den identifikazio txartela jarri beharko da, esparruko kontrol eta jarraipen lanak errazteko.

6. Baimena eskuratzeko tasa bat ordaindu beharko da, ordenantza honetan ezartzen den bezala.

7. Sobrón, Bachicabo, Barrio, Nograro, Quejo eta Gurendesko kontzejuek aprobetxamendu hauen bidez biltzen duten dirua xede hauetan inbertituko da: mendiak zaintzeko eta garbitzeko lanetan, ordenantza hau betearazteko kontrolean eta zaintzan edo ehuneko 15 hobekuntzetan, indarreko foru arauak ezartzen duen moduan.

### IV. titulua

#### Onuradunak

##### 6. artikulua. Aprobetxamenduaren baldintzak

1. Ordenantza honetan arautzen den aprobetxamendurako eskubidea edukiko dute:

1.1: Sobrón, Bachicabo, Barrio, Nograro, Quejo eta Gurendesko auzotarrek, erroldatuta daudenean, eta kontzeju horietan bizi diren pertsonak.

1.2: Azterketa mikologikoak egiten dituzten elkarteak eta erakundeak, irabazteko xederik ez badute.

2. Gainera, kontzejuetako auzotar ez direnei ere baimenak emango zaizkie (egunekoak, astekoak edo denboraldikoak). Baimen hauen kopurua denboraldiaren hasieran finkatuko da.

### V. titulua

#### Zerga kuota

##### 7. artikulua

1. Perretxikoen, basafruituen, landareen eta loreen aprobetxamenduarengatik ordaindu beharreko tasa berezia sortzen da ordenantza honetan xedatzen denarekin bat etorritik.

2. Zerga egitatea perretxikoak, basafruituak, landareak eta loreak kontsumorako edo merkaturatzeko biltzea da.

3. Tasa hurrengo tarifen arabera eskatuko da:

– Seigarren artikuluko 1.1 puntuko pertsonak denboraldiko baimena eduki behar dute. Baimenak udalek edo izendatzen diren erakunde laguntzaileek emango dituzte. Denboraldi bakoitzeko 5,00 euro ordaindu beharko dira.

Baimenak Arcenako Mendilerrorako baino ez du balioko.

– 1.2 puntuan adierazitako pertsonak baimen berezia eduki behar dute, alkateek edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak emana.

– 2. puntuko pertsonak eguneko, asteko edo denboraldiko baimena eduki behar dute, administrazio batzordeek edo erakunde laguntzaileek emana. Baimenak Arcenako Mendilerroko Erkidegoaren lurretarako baino ez du balioko.

BAIMEN MOTAK		BAIMEN KOPURUA
Egunekoa	5,00	euro 200
Astekoa	20,00	euro 200
Urtekoa	100,00	euro 100
Zientifikoa	doan	

14 urtetik beherako biltzaileek ez dute baimenik eduki behar; hala ere, perretxikotan egiteko, pertsona heldu baimendu batekin ibili behar dira eta hark edukiko du erantzukizuna. 14 - 16 urte bitartekoek gurasoen edo legezko tutoreen baimena behar dute bilketarako baimena eskuratzeko.

4. Baimena eskatu eta lortzen denean sortuko da tasa.

## VI. titulua

### Babes neurriak

#### 8. artikulua. Bilketarako egun baliiodunak eta ordutegia

1. Perretxikoak egunero bildu ahal izango dira, egunsentitik ilunabarrera arte. Ehiza larriko uxaldien arriskuaren berri ematen duen seinalea dagoen tokietan ezin izango da bildu perretxikorik, eta Arabako Foru Aldundiak ezartzen dituen debeku egunetan ere ezin izango da egin perretxikotan.

2. Aurrekoa gorabehera, kontzejuek bilketa egutegia finkatu ahal izango dute perretxikoak babesteko, hau da, perretxikotan noiz egin daitekeen ezarri ahal izango dute. Egutegiak espezieen edo zonen arabera izan daitezke.

#### 9. artikulua. Jokabide debekatuak

1. Arau orokor gisa, perretxikoak bilatzean zein lurretik biltzean ezin da irauli lurra, hots, ezin da aldatu azaleko lur geruza eskuz ez orbelak eta materia organikoa altxatzeko tresnaren bat erabiliz. Berariazko araudian agertzen ez diren onddo hipogeoak (lurpean hazten direnak) biltzen direnean, lurra hasieran egon den bezala utzi behar da, hau da, onddoak erauztean egindako zuloak bertako lurrarekin estali behar dira.

2. Debekatuta dago 4 cm-tik beherako diametrodun pileoa edo txapela duten perretxikoak biltzea, ondoko barietateetakoak izan ezik: *Craterellus tubaeformis*, *Craterellus lutescens*, *Craterellus cibarius*, *Craterellus cornucopioides*, *Marasmius oreades* (gaztelaniako izenak: rebozuelo atrompetado, rebozuelo anaranjado, rebozuelo, trompeta de los muertos, senderuela;

euskarazko izenak: saltsa-perretxiko horiluna, saltsa-perretxiko horia, zizahoria, susa, marasmio jangarria); hauen txapelaren diametroa 2 cm-koa izan behar da gutxienez.

3. Aprobetxamendu eremuetan kontzejuek ezartzen dituzten mugak eta seinaleak errespetatu behar dira.

4. Apurtutako perretxikoak, ustelak eta bildu ezin direnak ez dira ukitu behar.

#### **10. artikulua. Tresnen erabilera**

1. Perretxikotan dabilzanek ezin dute eduki aldean arrastelurik, aitzurrik, igitairik, jorraitik ez antzeko tresnarik (tamaina guztietakoak), nahiz eta ez erabili.

2. Perretxikoak biltzeko aitzoak, labanak eta antzeko tresnak soilik erabil daitezke.

3. Boilur matxetea berariazko araudirik ez duten onddo hipogeoak biltzeko bakarrik erabili ahal izango da.

4. Zuhaitz landareak biltzeko inausteko artaziak erabili ahal izango dira, edo aldaxkak mozteko labana.

#### **11. artikulua. Bilketarako arauak eta bilketa moduak**

1. Heldutasuneko tamainako perretxikoak bilduko dira, ordenantza honetako 9.2 artikuluan ezartzen diren gutxienerako neurriak errespetatuta. Perretxiko zaharrak, apurtuak, hondatuak eta bildu ezin direnak dauden lekuan utzi behar dira.

2. Identifikazioarekin zalantzak daudenean izan ezik, perretxikoak osorik bildu behar dira, hau da, ahaleginak egin behar dira kaskoa edo identifikaziorako behar den beste atalik lurtean ez uzteko. Perretxikoa etxera eramatea baztertuz gero, egon den lekuan utzi behar da, orriak (edo hodiak) behera begira dituela, ingurunea ahalik gutxienera narriatuta.

3. Perretxikoak biltzean ahaleginak egin behar dira mizelioari kalterik ez egiteko; horretarako, perretxikoak oinetik moztu daitezke edo, bestela, osorik atera daitezke (Boletus generokoak eta ondo identifikatzeko osorik ateratzea ezinbesteko den espezieak). Hau bigarren puntuaren ezarritakoaren kontrakoa da, baina zientzialariek frogatu dute kasu batzuetan kaltegarria dela perretxikoa oinetik moztea, perretxikoaren hondarrak beste onddo batzuen, intsektuen eta abarren erasoak jasa behar izaten ditu eta. Nolanahi ere, osorik ateraz gero, zuloa estali behar da, mizelioak erasorik jasan ez dezan.

4. Esporei sakabanatzen laguntzeko, perretxikoak otzaretan edo haiei jausten eta zabaltzen uzten dieten ontzietan eraman behar dira, inolaz ere ez plastikozko poltsetan.

5. Sukaldaritzarako, apaingarritarako edo medikuntzarako balio ez duten espezieak biltzeko 89/2009 Foru Dekretuko 2. artikuluko 3. eta 4. idatz zatietan xedatzen dena aplikatuko da.

#### **12. artikulua. Seinaleak**

1. Erabilzaileek eremu geografiko mugatuen edo debekatuen berri jakin dezaten, bai erabilera publikoko mendietan, bai lur pribatuetan, honelako seinaleak ipini behar dira: 42 x 29,5 cm gutxienez, letra beltzak hondo zuriaren gainean, testua hauetako bat dela: seinalea erakundearena bada, 12.2 artikuluan ezarritakoa; lur pribatuen jabeena edo erakunde arautzailearena bada, 12.3 artikuluan ezarritakoa. Horrez gainera mendiaren edo finkaren izena agertu behar da. Kartelak erraz ikusteko moduko lekuetan ipini behar dira sarbideetan eta finkako mugetan, 1,5 metroko zutoinen gainean.

2. Kontzejuek perretxikoak biltzeko debekua ezarri ahal izango dute aldi baterako. Horretarako "Perretxikoak biltzea debekatuta" dioten kartelak jarriko dituzte. Betiere, ordenantza honetako 13. artikuluan azaltzen den seinale sistema errespetatu beharko da.

3. Karteletan "Perretxikoak biltzea erreserbatuta" testua agertu behar da; ordenantza honetako 12.1 artikuluan ezartzen den bezala jarri behar dira.

Oro har, erabilera publikoko 108-110, 120, 132-137, 700-183, 140 eta 57 zenbakiko mendien mugetan, eta batez ere haien sarbideetan (errepideak, basoko pistak eta bideak), ordenantza honen xede den perretxiko bilketaren erregulazioaren seinaleak ipiniko dira: "Perretxikoen aprobetxamendua. Debekatuta dago baimenik gabe perretxikoak biltzea". Seinaleok aurreko paragrafoan azaldu den bezala ipini behar dira.

4. Hesiak eta seinaleak dagokienez, haiek aldatzea, itxiturak konpontzea eta, behar denean, hesi edo seinale gehiago jartzea erakunde jabearen kontura izango dira. Erabiltzaileek esparruetako mugak finkatzen dituzten hesiak eta seinaleak errespetatu behar dituzte. Hau betetzen ez dutenei, harrapatuz gero, zehapena ezarri ahal izango zaie, hain zuzen ere "auzolanak" egin beharra, eta horrez gainera kalteak konpondu beharko dituzte. Beraz, arau haulek bere kontura lehengoratu beharko ditu hondatutako elementuak, auzolan gisa, eta sortutako gastuak ordaindu beharko ditu.

## VII. titulua

### Mugak

#### 13. artikulua. Mugak, ibilgailuen zirkulazioa eta debekuak, oro har

1. Seigarren artikuluko 1.1 puntuan aipatzen diren pertsonen Arcenako Mendilerroko erabilera publikoko mendietako baimendutako pistak eta bideak erabili ahal izango dituzte. Hala ere, baliabide mikologikoak babestu edo zaindu beharra dela eta, pista horietan pertsonen, animalien edo ibilgailuen zirkulazioa mugatu ahal izango da aldi baterako.

Seigarren artikuluko bigarren puntuan aipatzen diren pertsonen aparkalekuetarako bideetan bakarrik erabil ditzakete ibilgailuak; ezin dira irten pista horietatik.

Aprobetxamenduan zehar aldean eduki behar da baimena, kontzejuek kontrolatu ahal izan dezaten, eta horrekin batera ibilgailuak erabiltzeko baimena ere bai. Ibilgailua ezin da erabili baimendutako bideetatik kanpo, eta berriaz ezarritako tokietan bakarrik aparkatu ahal izango da. Kontzejuek ezarriko dute non aparkatu daitekeen.

Bilketaldia amaitutakoan txartela itzuli behar da eta bildutako perretxikoen berri eman behar da (espezieak eta pisua, gutxi gorabehera), mendi hauetako espezieen jarraipena egiteko.

2. Egunean gehienez bi kilo perretxiko bildu ahal izango dira pertsonako, bi kilo basafruitu eta berrehun gramo landare eta lore, ontzian, edo eskutada bat, ontzirik gabe. Muga horiez gainera ordenantzaren eranskinean espezie bakoitzerako ezarritako gehieneko muga errespetatu behar da.

Azterketa mikologikoak egiten dituzten irabazteko xederik gabeko elkarteak eta erakundeak baimen berezia eskatu beharko dute perretxikoak aztertzeko. Elkarte eta erakunde horiek euren kideen zerrenda aurkeztu behar dute eta perretxiko bilketan jardun nahi duten urte guztietan eguneratu behar dute, urtarrilaren batean. Gainera, bildutako perretxikoen berri eman beharko dute ahalik azkarren (espezieen arabera zerrenda). Espezie bakoitzetik bil daitekeen pisua araututa dago eta aprobetxamenduko espezieen taulan finkatuta dago.

3. Aprobetxamendu eremuetan Sobrón, Bachicabo, Barrio, Nograro, Quejo eta Gurendesko kontzejuek ezartzen dituzten mugak, hesiak eta seinaleak errespetatu behar dira. Halakorik ezarri gero, jakinarazi egingo dute, eta perretxikotan dabiltzanak ezin sartu izango dira debekatutako lurretara.

4. Debekaturik dago hondakinak edo objektuak baimendutako lekuetatik kanpo uztea, hau da, herriguneetako zabor edukiontzietatik kanpo, bai eta erretzea ere.

5. Debekaturik dago jabari publiko hidraulikoa kutsatu edo andeatu dezaketen likidoak edo solidoak botatzea.

6. Debekaturik daude zaratak, argi distirak eta abereak zein basoko animaliak asaldatu ditzaketen bestelako energia igorpenak.

#### 14. artikulua. Kautelazko neurriak

1. Aurreko artikuluan xedatzen dena gorabehera, kontzejuek euren eskumeneko eremuan baliabideak zaintzeko eta babesteko kautelazko neurriak ezarri ahal izango dituzte. Erabakian arrazoiak azaldu behar dira.

2. Jabe den erakundeak aprobeixamendupeko espezieen zerrenda berrikusteko eta egiteko eskubidea izango du, beharrezkotzat jotzen duenean.

3. Kontuan hartu behar da perretxiko espezie iberiarren zerrenda gorria; kontzeju bakoitzak bere lurraldean arriskuan dauden espezieen zerrenda egin behar du, kontserbaziorako arau bereziak ezarri ahal izateko.

### VIII. titulua

#### Zehapen araubidea

#### 15. artikulua. Zehapen araubidea

Ordenantza honetan ezarritako arauak hausteagatik administrazio zehapena ezarriko da; horrez gainera arau hausleari bildutako produktuak eta baimena kenduko zaizkio eta ez zaio berriro baimenik emango arau haustea egin duenetik bi urte pasatu arte.

#### 16. artikulua. Aplikatuko den araubidea

1. Ordenantza honetan xedatzen denaren kontra arau hausteei martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, VII. tituluaren ezartzen duen zehapen araubidea aplikatuko zaie.

2. Euskadin arriskuan dauden basa animalia eta landare espezieen katalogoan agertzen diren landareak biltzea edo hondatzea arau haustea da ekainaren 20ko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko natura babestekoak, 76.4.f artikuluan ezartzen duenaren arabera.

#### Xedapen gehigarriak

Baldin eta Arabako Foru Aldundiak baimena ematen badu ordenantza honetako 14.2 artikuluan ezarritako gehieneko kopuruak gainditzeko, gehieneko kopuru baimendua horixe izango da automatikoki, hau da, Arabako Foru Aldundiak ezarritakoa.

### Eranskina

#### Aprobeixatu daitezkeen espezieen zerrenda

IZEN ZIENTIFIKOA	IZEN ARRUNTA		PISUA, GEH.
	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	
<i>Agaricus augustus</i>	Champiñón pardo	Txanpinoi arrea	2 kg.
<i>Agaricus bisporus</i>	Champiñón	Txampinoia	2 kg.
<i>Agaricus bitorquis</i>	Champiñón	Aspibeltz a	2 kg.
<i>Agaricus campestris</i>	Champiñón silvestre	Urdintxa	2 kg.
<i>Agaricus sylvaticus</i>	Champiñón de bosque	Basoetako azpibeltza	2 kg.
<i>Agaricus sylvicola</i>	Champiñón anisado	Anis azpibeltza	2 kg.
<i>Amanita rubescens</i>	Vinosa	Ardotsua	2 kg.
<i>Boletus aereus</i>	Hongo negro	Onddobeltza	2 kg.
<i>Boletus aestivalis</i>	Boleto reticulado	Onddozuria	2 kg.
<i>Boletus edulis</i>	Calabaza	Udazneko onddozuria	2 kg.
<i>Boletus erythropus</i>	Pie rojo	Onddo hankagorria	2 kg.
<i>Boletus pinophilus</i>	Boleto de pino	Kaskabeltza	2 kg.



IZEN ZIENTIFIKOA	IZEN ARRUNTA		PISUA, GEH.
	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	
<i>Cantharellus cibarius</i>	Rebozuelo	Saltsaperretxikoa	2 kg.
<i>Clitopilus prunulus</i>	Molinera	Errotaria	2 kg.
<i>Clitocybe geotropa</i>	Platera	San Martin ziza	2 kg.
<i>Clitocybe nebularis</i>	Pardilla	Ilarraka	2 kg.
<i>Coprinus comatus</i>	Barbuda	Urbeltz galparduna	2 kg.
<i>Craterellus cinereus</i>			2 kg.
<i>Craterellus cornucopioides</i>	Trompeta de los muertos	Saltsaperretxiko beltza	2 kg.
<i>Craterellus lutescens</i>	Trompeta amarilla	Saltsaperretxiko horia	2 kg.
<i>Craterellus tubaeformis</i>	Angula de monte	Saltsaperretxiko horiulan	2 kg.
<i>Fistulina hepática</i>	Hígado de buey	Idi-mihia	2 kg.
<i>Hydnum albidum</i>	Lengua de gato	Tripaki argia	2 kg.
<i>Hydnum repandum</i>	Lengua de vaca	Tripaki argia	2 kg.
<i>Hydnum rufescens</i>	Lengua de gato	Tripaki gorriska	2 kg.
<i>Hygrophorus latitabundus</i>			2 kg.
<i>Hygrophorus marzuolus</i>	Seta de marzo	Elur-ezkoa	2 kg.
<i>Lactarius deliciosus</i>	Níscalo, Nícalo	Esnegorria	2 kg.
<i>Lactarius quieticolor</i>	Níscalo, Nícalo	Esnegorria	2 kg.
<i>Lactarius sanguifluus</i>	Níscalo vinoso	Esneardotsua	2 kg.
<i>Lactarius semisanguifluus</i>		Esnegorrikorra	2 kg.
<i>Lepista nuda</i>	Borracha	Ziza hankaurdina	2 kg.
<i>Lepista personata</i>	Pie violeta	Ziza hankamorea	2 kg.
<i>Macrolepiota excoriata</i>	Apagador menor	Galanperna mamigorrixka	2 kg.
<i>Macrolepiota mastoidea</i>	Parasol	Galanperna puntaduna	2 kg.
<i>Macrolepiota procera</i>	Matacandelas	Galanperna jangarria	2 kg.
<i>Macrolepiota rhacodes</i>	Parasol de carne roja	Galanperna mamigorrixka	2 kg.
<i>Marasmius oreades</i>	Senderuela	Marasmio jangarria	2 kg.
<i>Morchella costata</i>	Colmenilla	Karraspina	2 kg.
<i>Morchella elata</i>	Colmenilla	Karraspina	2 kg.
<i>Morchella esculenta</i>	Colmenilla	Karraspina	2 kg.
<i>Morchella rotunda</i>	Colmenilla	Karraspina	2 kg.
<i>Morchella umbrina</i>	Colmenilla	Karraspina	2 kg.
<i>Morchella vulgaris</i>	Colmenilla	Karraspina	2 kg.
<i>Pleurotus eryngii</i>	Seta de cardo	Kardu-ziza	2 kg.
<i>Pleurotus ostreatus</i>		Belarri landua	2 kg.
<i>Russula cyanoxantha</i>	Carbonera	Urretxa	2 kg.
<i>Russula vesca</i>	Rúsula comestible	Gibelarrosa goiztiarra	2 kg.
<i>Russula virescens</i>	Gorro verde	Gibelurdina	2 kg.
<i>Suillus luteus</i>	Boleto anillado	Pinudi onddoa	2 kg.
<i>Tricholoma terreum</i>	Negrilla	Ziza arrea	2 kg.
<i>Tricholoma portentosum</i>	Capuchina	Ziza beltza	2 kg.
<i>Xerocomus badius</i>			2 kg.

### Espezie babestuen zerrenda gorria

Ondoko zerrenda honetako espezieak ezin dira bildu eta Naturaren Kontserbazioaren Legearen babespean daude:

*Agaricus arvensis* Schaeff.: Fr.

*Agaricus devoniensis* P. D. Orton

*Amanita singeri* Bas

*Amanita virosa* (Fr.) Bertill.  
*Amanita vittadinii* (Moretti) Vitt.  
*Aureoboletus gentilis* (Quél.) Pouzar  
*Beenakia fricta* Maas Geest.  
*Boletopsis grisea* (Peck) Bondartsev & Singer  
*Boletus fechtneri* Velen.  
*Boletus pulverulentus* Opat.  
*Boletus regius* Krombh.  
*Bovista paludosa* Lév.  
*Caloscypha fulgens* (Pers.: Fr.) Boud.  
*Cantharellus friesii* Quél.  
*Clathrus ruber* Mich.: Pers.  
*Clavaria argillacea* Fr.: Fr.  
*Clavaria fumosa* Pers.: Fr.  
*Clitocybe geotropa* (DC. & Lam.) Quél.  
*Coprinus martinii* J. Favre  
*Cortinarius orellanus* Fr.  
*Cortinarius caperatus* (Pers. : Fr.) P. Karst.  
*Cortinarius praestans* (Cordier) Gillet  
*Craterellus melanoxeros* (Desm.) Pérez-De-Greg.  
*Craterellus ianthinoxanthus* (Maire) Pérez-De-Greg.  
*Crinipellis sardoa* Candusso  
*Entoloma bloxamii* (Berk.) Sacc.  
*Floccularia luteovirens* (Alb. & Schwein: Fr.) Pouzar  
*Fomitopsis rosea* (Alb. & Schwein.: Fr.) P. Karst.  
*Galerina paludosa* (Fr.) Kühner  
*Ganoderma pfeifferi* Bres.  
*Geastrum fornicatum* (Huds.) Hook.  
*Geoglossum atropurpureum* Batsch: Fr.  
*Gomphidius glutinosus* (Schaeff.: Fr.) Fr.  
*Gomphidius roseus* (Fr.: Fr.) Fr.  
*Gomphus clavatus* (Pers.: Fr.) Gray  
*Gyrodon lividus* (Bull.: Fr.) Fr.  
*Gyroporus cyanescens* (Bull.: Fr.) Quél.  
*Hericium erinaceus* (Bull.: Fr.) Pers.  
*Hydnellum peckii* Banker  
*Hygrocybe calyptriformis* (Berk. & Broome) Fayod  
*Hygrocybe conicoides* (P. D. Orton) P. D. Orton & Watling

*Hygrocybe spadicea* (Scop.) P. Karst.  
*Hygrophorus carneogriseus* Malençon  
*Lactarius luteolus* Peck  
*Laricifomes officinalis* (Vill.: Fr.) Kotl. & Pouzar  
*Laurobasidium lauri* (Geyl.) Jülich  
*Leucopaxillus rhodoleucus* (Romell) Kühner  
*Melanophyllum haematospermum* (Bull.: Fr.) Kreisel  
*Myriostoma coliforme* (Dicks.: Fr.) Corda  
*Omphalina ericetorum* (Bull.: Fr.) M. Lange  
*Peziza ammophila* Dur. & Mont.  
*Phaeolepiota aurea* (Matt.: Fr.) Maire  
*Phylloporus pelletieri* (Lév.) Quél.  
*Piptoporus quercinus* (Schrad.) P. Karst.  
*Pluteus aurantiorugosus* (Trog) Sacc.  
*Podoscypha multizonata* (Berk. & Broome) Pat.  
*Polyporus squamosus* Huds. : Fr.  
*Porphyrellus porphyrosporus* (Fr. & Hök) E. J. Gilbert  
*Ptychoverpa bohémica* (Krombh.) Boud.  
*Pulveroboletus lignicola* (Kallenb.) E. A. Dick & Snell  
*Ramaria botrytis* (Pers.: Fr.) Bourdot  
*Ramaria cedretorum* (Maire) Malençon  
*Ramariopsis crocea* (Pers.: Fr.) Corner  
*Russula virescens* (Schaeff.) Fr.  
*Sarcodon cyrneus* Maas Geest.  
*Sarcodon fuligineoviolaceus* (Kalchbr.) Pat.  
*Scutiger pes-caprae* (Pers.: Fr.) Bondartsev & Singer  
*Sericeomyces subvolvatus* (Malençon & Bertault ) Bon  
*Squamanita cettoiana* M. M. Moser  
*Strobilomyces strobilaceus* (Scop.: Fr.) Berk.  
*Suillus flavidus* (Fr.: Fr.) Singer  
*Tricholoma colossus* (Fr.) Quél.  
*Tricholoma columbeta* (Fr.) P. Kumm.  
*Tricholoma roseoacervum* A. Riva  
*Verpa digitaliformis* Pers. : Fr.

Barrio, 2014ko abenduaren 5a

Lehendakaria  
MIGUEL ÁNGEL LLANOS NIEVA